

# GIL 114 Urduñako modelatu estrukturala (mesa)



Gorobel mendilerroko mesaren / erliebe maldatsuaren ikuspegia.

## Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 59' 44 " N

Long.: 3° 3' 4" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 495.837,45 m

Y: 4.760.334,91 m



## Nola iritsi

Leku batetik baino gehiagotatik irits daiteke GILera. Biderik errazenetako bat Berberana eta Urduña arteko errepidetik abiatzen da. Urduñako norabidean, ezkerrean, Peñako Ama Birjinaren ermitaraino doan bidea hartu behar da; mesaren goialdea zeharkatzen duen bidexka bat da. Badira beste bide batzuk, iparraldetik datozenak: besteak beste, Tertangatik atera eta, mazelan gora, gorengo zatira doana; eta Marquesa baserritik, bide piko batean gora, sigi-sagaka, ermitaren ingururaino doana.



Txarlazo mendia. Subillako kareharrien hegoalderanzko okerdura txikia ikusten da, bai eta Subillako kareharrien eta Zuhatzuko tugarrien arteko aldaketa litologikoarekin bat datorren pendiz-aldaketa ere

## GILaren deskribapen laburra

Urduñako mesa topografia leuneko plataforma estruktural bat da. Hegoaldean, Urduñako diapiroak ixten du. Erliebe maldatsu bat da. Atzealdea Burgosko probintzian dago bete-betean, eta Gaztela eta Leonen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko muga egiten du maldaren atzealdea eta aurrealdea bereizten dituen maldaren etenak.

Gorobel mendilerroan dago multzoa. Mendilerro hori isurialde kantauriarren eta mediterraneoaren banalerroko erliebe-unitate bat da. Hala, iparraldeko zatia Bizkaiko eta Arabako lurretan sartzen da, eta Kantauri itsasora isurtzen ditu urak; hegoaldeko zatiko urak, berriz, Ebrora isurtzen dira. Beraz, muga administratiboak bat egiten du muga naturalarekin, kareharritzko gailur ikusgarriak markatzen baitu maldaren muga.

Gorobel mendilerroak Araba eta Burgosen zati bana hartzen du, eta 1.100 m-tik gorako tontorrak ditu (Eskutxi, 1.178 m). Geomorfologikoki, erliebe monoklinal maldatsu bat da, E-W norabidekoa, eta hegoaldera okertua dago pixka bat Urduñako diapiro hurbilaren eraginez. Subillako kareharritzko banku lodien gainean eratua dago. Banku horiek morfologikoki nabarmentzen dira paisaian, eta plataforma leun bat osatzen dute, oso karstifikatua. Kretazeoko kareharrien azpian, Turoniarreko kareharri buztintsu eta tugarriak txandakatzen dira; haiek osatzen dute eboluzio karstikoa sakonean mugatzen duen maila iragazgaitza.

Multzoak, iparralderantz, aurrealde nabarmen bat du, puntu batzuetan 600 m-tik gorako desnibela duena. Aurrealde horren goialdean, erlaitz oso pikoak daude, bai eta subbertikalak ere materialik erresistenteenak dauden tokian; material tupatsuen gainean, berriz, kolubioiek gehiago erregularizatutako ezpondak daude, profil zuzenagokoak. Erreka ugari daude aurrealde osoan; erlaitzetatik jaisten dira, eta tugarrietan sartzen. Hegoaldeko isurialdea, zeinak bat egiten baitu maldaren atzealdearekin, leunagoa da askoz, eta oso txikiak dira maldak.



Tologorri gailurra mesaren oinarritik.

Multzo osoan, kareharria da nagusi, eta, horri esker, modelaketa karstiko handi bat gartu da, atzealdeko eremu topografiko osoa zipriztintzen duena. Han, oso erraz bereizten dira dolinak, lapiazak eta leizeak, zeinak garapen handiko endokarst batekin lotuta baitaude. Osagai estrukturala argi ikusten da forma karstikoen banaketan eta orientazioan, haustura-sareak bideratzen baititu, argi eta garbi, forma horiek.

## Behatzeko punturik onena

Maroñoko urtegitik edo Urduña eta Amurrio arteko BI-3931 errepideko edozein puntutatik.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 57, GIL 69, GIL 109.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 113, GIL 6, GIL 29, GIL 69, GIL 109, GIL 121.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potenziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b> Txarrazoko gailurrean, Antiguako Ama dago.					
<b>Oharrak:</b>					